



BABES FUNDAZIOA

# MEMORIA 2018

## FUNDACIÓN TUTELAR ATZEGI



**C/ Okendo, 6 bajo. 20004 DONOSTIA. Teléfono 943 42 39 42**

**[fundaciontutelar@atzegi.org](mailto:fundaciontutelar@atzegi.org)**

**[www.atzegibabesfundazioa.eus](http://www.atzegibabesfundazioa.eus)**

# ATZEGI BABES FUNDAZIOA

## *Babesten zaituen norbait izatea*

Familia eta gizartearen aurrean egoera babesgabeen dauden eta ez gaitasun intelektuala duten pertsona helduen tutoretza gauzatzea da gure misioa. Horretarako espresuki sortutako irabazi asmorik gabeko erakunde juridikoa gara.

Fundazioak tutoretzak onartzea azken alternatiba da, beti. Tutoretzak onartu ahal izateko posibilitate guztietan azkenekoa da fundazioarena, pertsona fisiko egokia topatu ez izanaren ondorioz.



Tutoretza, Jarduteko Gaitasunaren Aldaketaren prozesuaren ostean ezartzen da eta tutoretzapeko pertsonak, zein behar dituen eta zertarako behar dituen epaileak erabakitzen du. Babes neurri hauek proportzionalak izango dira eta tutelatutako pertsona bakoitzaren behar espezifikoetara egokituak. Ondasunen eta bizitzako erabaki garrantzitsuenen inguruan babesa sentitzea eta laguntzea da helburutzat.

Talde lana da gure lan egiteko metodoa. Malgutasunez, sormenez, ausardiaz eta zuhurtziaz, baina batik bat, konpromiso eta konfiantzaz.

**“Tutoretzapeko pertsona da garrantzitsuena.”**

Babes Fundazioa zure premiak eta ametsak zein diren ezagutzen ahalegintzen da; eta horiek lortzeko sostengua ematen dizu.

## DATUAK

2018an zehar guztira, urtearen amaieran, tutelako 129 pertsona genituen. Urtean zehar, hiru baja izan dira, bat heriotzagatik eta beste biak, neurri kautelarren amaieragatik.



Gipuzkoako eskualde ezberdinetan bizi dira pertsona tutelatuak.

Bizileku egoera ezberdinak dituzte pertsona tutelatuak. Hauek izan ditzaketen beharren eta nahien arabera, profil ezberdinetakoak izan daitezke pertsona hauen bizilekuak. Behar gehien dutenek edo uneoroko babesa behar dutenengatik hasi eta autonomia edo pertsona talde ezberdinetan bizi diren kasuak aurki genitzake, baita etxebizitza babestu, norbere etxean edo egoitza ezberdinetan bizi direnak ere.

*"Ni falta naizenean, nor arduratuko da nire seme-alabez?"*



Erantzuna sinplea da:

*"Momentua eta egoera hori iristean, ezgaitasuna duen pertsona egoera babesgabean aurkitzen bada, Fundazioak, epaitegiak proposatutako seme/alabaren kasua onartuko du, bizi-kalitatea beti bermatuz."*

2018 amaieran, guztira, 28 familiek zuten sinatuta etorkizuneko konpromisoa.

**Etorkizuna ezin da une batetik bestera prestatu. Etorkizuna egunerokoan prestatu behar da, orainaldian. Egoera onartu eta ezgaitasun intelektuala duen pertsonaren autonomia eta gaitasunak estimulatuz eta potentzializatuz prestatu behar da.**

## **ARANTZAZU PROGRAMA: PERTSONA TUTELATUEN HARRERA TALDEA**

2017az geroztikakoa da Pertsona Tutelatuen Harrera Taldearen sorrera. Tutelapeko pertsonen osaturiko talde hau, 2018an zehar sendotu eta indartu egin da eta honen helburua, tutelatuen izango diren pertsona berriei harrera egokia egitea da, informatuz eta orientatuz. Horrela, Fundaziora batutako pertsona berriek,

fundazioaren inguruan esperientziak elkarbanatuta informazio gehiago izango dute.

*Elkarrekin Bila* programaren bitartez, Arantzazuko santutegian asteburu pasa antolatu genuen. Bertan, pertsona tutelatuak, babes boluntarioak, profesional teknikoak eta Patronatuko kideak lankidetzan aritu ginen.

## BABES BOLUNTARIOAK



Fundazioaren lan metodologiaren baitan dago Babes Boluntarioen parte hartzea.

Babes boluntarioek, aktiboki parte hartzen dute Fundazioaren misioan, tutelatu bakoitzarekin duten harreman pertsonal eta estuagatik.

Boluntarioek, tutelaturako pertsonen gaitasunetan eragin eta ongizate afektibo-emozionalak potentzializatzen eragiten dute, konpromiso etiko eta solidarioak bultzatuta.

Bi pertsonen arteko harremanak, babes eta laguntza naturalak hobetzen ditu, ezgaitasuna duten pertsonen bizi kalitatea hobetzeaz gain. Profesional ezberdinekin (tekniko, lankide, pisukide...) izan ditzaketen harremanez haratago, harreman sozial esanguratsuak sortzen dira, adinarekin eta gustu eta behar antzekoak izan ditzaketen planak eta nahiak elkarbanatuz.

2018an Kutxa Fundazioaren lankidetzan izan dugu. Boluntariotza proiektuaren garapenean lagundu gaitu eta honi esker, 10 Babes Boluntario berri batu dira *Atzegi Babes Fundazioaren* proiektura.



**Babes Boluntarioen lan taldea,  
45 pertonez osatua dago.**

**Horietako 37 emakumezkoak  
dira eta 8 gizonezkoak.**



## **ZUZENDARITZA BERRIA**

Aurtengo aldaketa garrantzitsuenetako bat, profesional taldean izandako zuzendaritza aldaketa izan da.

Fundazioaren patronatuak, erakundeari sostengu, izaera eta indar handiagoa emateko asmoz, 2018ko urriaz geroztik, lanaldi osoan dagoen zuzendari berria du Fundazioak.

## **ATZEGI BABES FUNDAZIOAREN WEB ORRI BERRIA**

2018ko ekainean, *Atzegi Babes Fundazioaren* web orri berria jarri genuen martxan. Modu irakurterrazean sortutako weborria da, *Atzegi Babes Fundazioak* egiten duen lanaren berri eman eta gizarteratzeko.

*Twitter* eta *Facebook* sare sozial berriak ere sortu ditugu.

Web orriaren *linka*: [www.atzegibabesfundazioa.eus](http://www.atzegibabesfundazioa.eus)



Irakurketa errazean

**Web orri berria egin dugu Atzegi Babes  
Fundazioan**

Hemen topa gaitzakezu:

[www.atzegibabesfundazioa.eus](http://www.atzegibabesfundazioa.eus)